Gipuzkoako
Herritarren Batzarra.
**Landa-eremua**
**eta Klima.**

**KODEA: XXXXXXX**
**Izen-emate epea: urriak 17 (barne)**

## Landa-eremua eta klimari buruz proposamenak emateko, Gipuzkoako HERRITARREN BATZARREKO PARTE IZAN nahi duzu?

*Donostia, 2022 ko irailaren 19an*

Herritar horri:

**Gutun hau jaso duzu zure helbidea zozketa bidez hautatua izan delako eta honela**, klima-larrialdiaren aurka ekarpena eginez Gipuzkoako nekazaritza-sektorea hobetzeko, **Herritarren Batzar batean parte hartzeko aukera ematen zaizu**. Zurekin bizi den edozein pertsona edo zu zeu aurkeztu zaitezke boluntario moduan prozesuan parte hartzeko. Baldintza bakarra 16 urtetik gorakoa izatea da eta zozketan aukeratua izan den etxebizitza bakoitzetik gehienez pertsona batek izena ematea da.

Gipuzkoan, munduko beste hainbat lekutan bezala, landa-eremuko lehen sektorean (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzaren kudeaketaz ari gara nagusiki hemen) bizi eta lan egiten duten pertsonek zailtasun handiak dituzte orokorrean ingurune horretan bizirauteko. Bestalde, landa-eremua bereziki ahula da klima-aldaketaren aurrean eta nekazaritza-sektoreak aukera handiak ditu eta zeregin garrantzitsua izan dezake klima-larrialdiari zein bere eraginei aurre egiten eta egokitzen.

Bi erronka hauek lotuta daude, eta potentzial handia dute batera ekiteko, hainbat eragileren arteko lankidetzaren bidez (administrazio publikoak, gizarte zibil antolatua, herritarrak).

Horregatik, honako galdera honi erantzun beharko dion Herritarren Batzar bat jarri dugu abian: **Nola bermatu dezakegu Gipuzkoako nekazal-jarduera klima-larrialdiari aurre egiteko?**

Gutuna jaso eta boluntario gisa Batzarrean parte hartzeko izena ematen duzuen pertsona guztien artean bigarren zozketa bat egingo da, ondorengo irizpide hauek kontuan hartuta: sexua, adina, hezkuntza maila, hizkuntza, kokapen geografikoa eta gaiarekiko jarrera. Zozketa honen helburua Herritarren Batzarrean parte hartzen duten 32 pertsonak Gipuzkoako biztanleriaren isla izatea da. Zozketa honetan hautatua gertatzen bazara, lau lan-saioetan parte hartzeko konpromisoa hartu beharko duzu. Saio horietan, askotariko ikuspegiak dituzten adituek informazioa emango dizuete eta, elkarrizketaren eta deliberazioaren bidez, proposatutako galderari erantzun eta gomendio adostuak eman beharko dizkiozue Gipuzkoako Foru Aldundiari Batzarrean parte hartuko duzuen herritarrek.

Parte hartzeko, ez da beharrezkoa nekazaritza-sektorearen edo klima-aldaketaren aldez aurretiko ezagutza izatea, bileretan zehar erabakiak hartzeko beharrezkoa den informazioa eta laguntza teknikoa emango zaizu eta. Prozesu osoan zehar, Batzarreko kide bakoitzaren pribatutasuna gordeko da.

Badakigu zure denbora balio handikoa dela eta, beraz, parte hartzen duzuen pertsonek ordain ekonomiko bat jasoko duzue eta saioetako joan-etorrien eta mantenuaren gastuak estalita egongo dira.

Beraz, Batzarkide izan nahi baduzu, **zure izena eman 2022ko urriaren 17a (barne)**, bi bide hauetako bat erabiliz:
1) Batzarraren web orrian dagoen inprimakia bete esteka honetan:

www.gipuzkoa.eus/eu/web/herritarrenbatzarra/zozketan-tokatu-zait

2) Telefonoz izena eman ondorengo zenbakian: 943426920.
**Gogoan izan izen-ematea egiterakoan gutun honen goikaldean zehazten den KODEA eskatuko zaizula. Helbide bakoitzak bere kodea du**.

Edonola ere, erantsitako dokumentuan egitasmoaren inguruko informazio osagarria kontsulta dezakezu.

Jaso ezazu agur bero bat.

Eider Mendoza
Gobernantza Diputatua

Gipuzkoako
Herritarren Batzarra.
**Landa-eremua**
**eta Klima.**

**CÓDIGO: XXXXXXX**
**Plazo de inscripción: 17 de octubre (incluido)**

## ¿Quieres SER MIEMBRO DE LA ASAMBLEA CIUDADANA de Gipuzkoa para plantear propuestas sobre Medio Rural y Clima?

*En Donostia/San Sebastián, a 19 de septiembre de 2022*

Estimada/o ciudadana/o:

Recibes esta carta porque **tu dirección ha sido seleccionada por sorteo y, por lo tanto, te ofrecemos la posibilidad de participar en una Asamblea Ciudadana** para mejorar el sector agrario guipuzcoano, contribuyendo a luchar contra la emergencia climática. Cualquier persona con la que convivas o tú mismo puede presentarse como voluntaria para participar en el proceso. El único requisito es tener más de 16 años y que no se inscriba más de una persona por cada vivienda seleccionada en el sorteo.

En Gipuzkoa, al igual que en muchas partes del mundo, las personas que viven y trabajan en el sector primario rural (estamos aquí hablando principalmente de la agricultura, ganadería y gestión de los bosques) tienen por lo general serias dificultades para sobrevivir en este entorno. Por otro lado, el medio rural es especialmente vulnerable al cambio climático y el sector agrario tiene grandes oportunidades y puede tener un rol en la respuesta y adaptación a la emergencia climática y sus impactos.

Estos dos retos, conectados, presentan un gran potencial para abordarlos de manera conjunta mediante la colaboración entre diferentes agentes (administraciones públicas, sociedad civil organizada, ciudadanía...).

Por esta razón ponemos en marcha una Asamblea Ciudadana que tendrá que responder a la siguiente pregunta: **¿Cómo podemos garantizar la actividad agraria de Gipuzkoa para hacer frente a la emergencia climática?**

De entre todas las personas que recibáis la carta y os inscribáis como voluntarias para participar en la Asamblea, se realizará un segundo sorteo que tendrá en cuenta los siguientes criterios: sexo, edad, nivel educativo, idiomas, localización geográfica y actitud ante la temática. El objetivo de este sorteo es que las 32 personas participantes en la Asamblea Ciudadana sean el reflejo de la población de Gipuzkoa.

Si resultas una persona seleccionada en este sorteo deberás comprometerte a participar en las cuatro sesiones de trabajo previstas. En estas sesiones os informarán personas expertas con diferentes puntos de vista y, mediante el diálogo y la deliberación, las personas que participéis en la Asamblea tendréis que hacer recomendaciones consensuadas a la Diputación Foral de Gipuzkoa, en relación a la pregunta planteada.

Para participar no es necesario tener conocimientos previos sobre el sector agrario o el cambio climático, ya que durante las reuniones se proporcionará la información y la asistencia técnica necesaria para la toma de decisiones. Durante todo el proceso se preservará la privacidad de cada uno de los miembros de la Asamblea.

Somos conscientes de que tu tiempo es muy valioso y por ello, las personas que participéis, recibiréis una contraprestación económica y vuestros gastos de desplazamiento y manutención estarán cubiertos.

Por tanto, si deseas ser miembro de la Asamblea, el plazo que tienes para inscribirte es el **17 de octubre 2022 (incluido)** por una de estas dos vías:
1) Rellena el formulario que se encuentra en la página web de la Asamblea en el siguiente enlace:

https://www.gipuzkoa.eus/es/web/herritarrenbatzarra/me-toco-loteria

2) Inscríbete telefónicamente en el siguiente número: 943426920.
**Ten en cuenta que al realizar la inscripción se te solicitará el código que aparece en la parte superior de esta carta. Cada dirección tiene su código.**

En cualquier caso, puedes consultar información complementaria sobre esta iniciativa en el documento adjunto.

Recibe un cordial saludo.

Eider Mendoza
Diputada de Gobernanza